

5. Banaketa, salmenta eta komunikazio kanalak


Gure zerbitzua, enpresan bertan muntatuko dugun laborategi txiki batean eskainiko dugu. Guk diseinaturiko kontainer baten tamainako laborategi eramangarria, garraio enpresa baten laguntzaz, lan egingo dugun tokira eramango dugu. Laborategi txiki hori, gasak isurtzen diren tokian jarriko dugu eta gure enpresako bi kimikari eramango ditugu astero prozesua gainbegiratzeko. Honela, gure zerbitzua kontratatu duten enpresek ez dute CO₂-a bezalako gas ezegonkorra gure laborategi nagusira eraman behar.

Bestalde, adreiluak saltzeko, lehenik, gure enpresaren kamioi batekin eramango ditugu biltegirara. Bi astero, gure kamioia laborategia dugun enpresa guztietara joango da sortutako adreiluak jaso eta harri horiek sortzeko behar den basaltoa eramateko.

Eraikuntza harriak banatzeko, zeharkako kanala erabiliko dugu, beste enpresa bat kontratatuko baitugu biltegitik obretara harriak eraman ditzan. Honela, kudeaketa prozesua erraztu eta merketuko dugu.

Gure enpresaren komunikazio eta salmenta kanalak, interneten bidez gauzatuko ditugu. Webgune bat sortuko dugu eta web horretan, gure enpresari buruzko informazioa egongo da baita gu kontaktatzeko telefono zenbaki bat eta eskaerak egiteko bete behar den informazio orri digital bat. Honela, eskariak, telefonoz edo online egin ahal izango dira.





Mapa honetan ikusten denez, Ramhoo laborategi nagusia Zamudion daukagu eta laborategi horretan gure adreiluak eraikitzeko behar dugun formularekin lan egiten dugu CO2-a eta Kobaltoa nahastuz.

Itsasadarreko bi eskualdetan bi industria nagusi ditugu. Haiek sortutako CO2-a gordetzen dugu diru kopuru baten truke. Kamioietan garraiatzen dugu beharrezko materiala eta Deustun kokatutako biltegian gordeko ditugu materialak.

Hori guztia irudikatu ditugun marretan adierazten da.